



LORADENDA/FLORISTERIA
ARREGI

Loreekin gauza asko estaltzen dira, eta konpondu ere bai. Jaiotzetik heriotzaraino erabiltzen dira bizitzaren ibilbideko ospakizun guztietan. Ondo dakite Arregi familiakoek, 100 urte inguru baitaramate horretan, loreak saltzen eta loreekin ekitaldi desberdinak apaintzen.

1923an finkatzen dute etxearen sorrera data, familian galduta lortu dute hori. Arramele auzoko kaleko etxe batean bizi ziren Jose Antonio eta Dominika Arregi eta bizitegia zuten. Landareak eta loreak hazten zituzten bizitegiaren gero bezeroei saltzeko. Ondoren bere seme Perikok jarraitu zuen langintza berean bere emazte Maria Aranzegirekin batera. Hauen semeak, Jose Miguel eta Jose Luis, izan ziren jarraitzaileak, bien emazteekin, Consuelo eta M^a Jose. Azken honek du gaur egun negozioaren ardura bere seme Jonekin. Familia bereko lau belaunaldi mantendu dira negozio honetan.

Las flores ocultan muchas cosas y también las arreglan. Se utilizan desde el nacimiento hasta el fallecimiento en todas las celebraciones que suceden en el tránsito de la vida. Lo saben bien en Casa Arregui, ya que llevan en ello alrededor de 100 años, vendiendo flores y decorando con ellas, diferentes eventos.

Tras consultar a la familia Arregi, estos, sitúan la fecha de fundción en 1923. Antonio y Dominica Arregui vivían en una casa del barrio de Arramele y tenían un vivero. Cultivaban plantas y flores que luego vendían a sus clientes. Su hijo Perico, continuó su labor junto con su mujer María Arancegui. Los hijos de éstos, José Miguel y José Luis, junto con sus respectivas esposas Consuelo y M^a José, les siguieron. Ésta última, es la responsable actual del negocio con su hijo Jon. Cuatro generaciones de la misma familia se han mantenido en el negocio.




B

izitegia pixkanaka handitzen joan zen 5.000 metro karratuko lurraldea hartu bitarte. horretarako Gorostidi enpresari lurrak erosiz. Leku berean mantendu zen auzo horretan lantegiak bota eta gaur egun Larramendi kalean dauden etxe berriak eraiki arte. 2006an izan zen hori eta orduan errepidearen beste aldera pasatu ziren Jose Luis eta M^a Jose. dekorazio eta lore denda handi bat jarriz. bizitegirik gabe. Tokitan gelditu dira negutegia berotzeko ikatza erabiltzen zuten garaiak, gasa sartu baino lehen.



Jose Antonio Arregi eta Dominika Arregi Amasakoak ziren eta barazkiak saltzen hasi ziren. Pixkanaka hasi omen ziren lore batzuk ere saltzen. Ez zuen pentsatuko orduan negozioaren bilakaera hortik joango zenik. Bertan landatutako daliak, gladioloak, krabelinak, izan ziren saldutako lehenengoak. Tolosa eta Ordiziako asteroko azoketan saltzen aritu ziren urte askotan. oraingo denda berria ireki aurretik utzi zuten arte. Ordiziako azoka estalperik gabe ezagutu omen zuten belaunaldi honetakoek. XX. mende hasieran.



El vivero fue creciendo poco a poco hasta llegar a tener un terreno de 5.000 metros cuadrados, tras haber comprado tierras a la empresa Gorostidi; estuvo en dicha ubicación hasta que en 2006 se derribaron las empresas que había en dicho barrio y se construyeron nuevas viviendas. Entonces, José Luis y M^a José se trasladaron al otro lado de la calle y abrieron una gran tienda de flores y decoración, pero sin vivero. Han quedado lejos los tiempos en que utilizaban carbón para calentar el invernadero, antes de la introducción del gas.



José Antonio Arregui y Dominica Arregui eran de Amasa y empezaron vendiendo verduras. Poco a poco comenzaron a vender algunas flores. No pensarían entonces que la evolución del negocio fuera en esa dirección. Las primeras flores que vendieron fueron las dalias, gladiolos, claveles... que cultivaban. Durante muchos años las vendieron en los mercados semanales de Tolosa y Ordizia, hasta que lo dejaron unos años antes de abrir la nueva tienda. Los de esta generación conocieron el mercado descubierto de Ordizia, a comienzos del siglo XX.



*B*igarren belaunaldiak eman zuen jauzirik handiena. Periko eta Maria itsasondolarra: loreak ondo saltzen zirela ikusita, barazkiak utzi zituzten, eta ezkontza eta horrelako ospakizunetan hasi ziren lanean. Ordu arte Donostiako lore-denda batzuk besterik ez zeuden hemen inguruan. 1948-50 inguruko ezkontza bateko argazkia gordetzen dute, Santa Maria parrokian egindako herriko familia aberats baten ezkontza batena. Ikusgarria da jarrita dagoen lore kopurua, tartean papezko batzuk ere bai.

La segunda generación, Perico y la itsasondoarra María, dieron el mayor salto: viendo que las flores se vendían bien, dejaron las verduras y empezaron a preparar bodas y otros eventos. Hasta entonces, en los alrededores, solo había algunas floristerías en San Sebastián que se dedicaban a ello. Guardan la foto de una boda de 1948-50, en la parroquia Santa María, que pertenece a una familia rica de Tolosa. Es impresionante el número de flores que se pueden ver, entre ellas algunas de papel.





*A*irugarren belaunaldiak ospakizun bereziekin jarraitu zuen eta dekorazioa ere sartu zuen. Urte batean 91 ezkontza izatera iritsi zirela gogoratzen du M^a Jose Agirre amasarrak. Neurri, klase eta estilo guztietako ezkontzak izan dituzte, baina hilabete bateko prestaketa eman zien ezkontza bat aipatzen du bereziki. Goierriko industria-gizon baten alaba Toledoko markes baten semearekin ezkondu zenekoa: lehendabizi proiektua egin eta aurkeztu, esku eskatze festa Goierriin, igerilekua urez hustu eta hortentsiaz bete, ezkontza Toledon, kamara frigorifikoan eraman loreak, gaztelua zuen orube bat apaindu, mahaiko xehetasun guztiak, milaka lore guztira. Hori dena egiteko familiak jarritako dekoratzaile batekin aritu ziren lanean

La tercera generación continuó con las celebraciones especiales e introdujo la decoración. M^a José Aguirre, de Amasa, recuerda que un año llegaron a tener 91 bodas. Han tenido bodas de todos los tamaños, clases y estilos, pero mencionan especialmente una que les llevó un mes de preparación, entre la hija de un industrial del Goierri y el hijo de un marqués de Toledo: primeramente realizar y presentar el proyecto, la fiesta de pedida de mano en el Goierri, vaciar de agua una piscina y llenarla de hortensias, la boda en Toledo, transportar las flores en cámaras frigoríficas, decorar una finca que tenía un castillo, todos los detalles de la mesa, miles de flores en total. Para ello trabajaron con una decoradora de la familia.



nguruko ermita, eliza, apaiz, serora eta argazkilariak ondo ezagutzen dituzte Arregitarrek. Izaskun, Santa Maria, Aldaba, Donostiako Artzain Ona, Arramele eta Liernia aipatu dituzte bereziki, besteak beste. Egun berean bost ezkontza izatera iritsi izan dira, Gipuzkoako toki desberdinetan: Tolosako Santa Maria, Azpeitia, Izaskun, Zaldibia eta Orion, horrek suposatzen duen lanarekin, bezpera edo egun bera iritsi arte ezin delako ia ezer aurreratu. Ezkontzetan arroza botatzearen ohitura debekatzea onerako izan dela diote, jasotzen ematen zuen lanarengatik. Gaur egun asko jaitsi da ezkontza kopurua, baina oraindik asko izaten dituzte. Batzuk andregaiaren erramua, autoa eta eliza edo udaltxea apaintzearekin nahikoa dute. Beste batzuk muntai handiagoak nahi izaten dituzte, dekorazio gehiago jarritz eta jatetxea ere sartuz apaindu beharrekoan.

Los Arregui conocen bien las ermitas, iglesias, curas, seroras y fotógrafos del entorno. Mencionan Izaskun, Santa María, Aldaba, Buen Pastor de San Sebastián, Arramele y Liernia, entre otras. Han llegado a tener cinco bodas el mismo día, en sitios diferentes de Gipuzkoa: Santa María de Tolosa, Azpeitia, Izaskun, Zaldibia y Orío, con el trabajo que ello supone, ya que hasta la víspera o la misma mañana no se puede adelantar casi nada. Dicen que prohibir la costumbre de echar arroz en las bodas ha sido para bien por el trabajo que suponía recogerlo. Aunque ha disminuido mucho el número de bodas, todavía tienen muchas. Algunos se conforman con el ramo de la novia y la decoración del coche y la iglesia o ayuntamiento. Otros en cambio prefieren montajes mayores, con más decoración e incluyendo también la decoración del restaurante.



*A*erriko jaietan Santa Maria parrokian dagoen San Juanen irudia apaintzen eta Arrameleko ermitan egiten diren bezpera eta konpleten ondoren krabelinak banatzen urteak daramala Arregi familiak aipatu gabe ez dugu utzi behar.

Bizitzaren ibilbideko une garrantzitsuenetan loreak presente daudela esan dugu lehen. Jaiotza, bataioa, lehen jaunartzea, ezkontza, urtebetetzeak eta heriotza hor daude, esaterako. Azken honetan lan handia izaten dute, tanatorioekin harreman estuan. Dedikazio handiko lana da lo-reena, ordurik gabe hala behar denean, eta hori desagertzen ari dela diote.

Gaur egun enpresekin egiten dute lan gero eta gehiago: bulegoen dekorazioan, inaugurazio eta bestelako ekitaldien apainketan, lantokiaren kanpoaldea... Mundu berria ireki zaie lore-dendei. Beti ideia berriak ibili behar izaten dituzte honetan, aurretik proposamen ugari egin behar izaten direlako, ezkontzetan bezala, jaiotzetik ekarritako sormenari esperientzia luzea erantsiz horretarako. Hiru sari irabazi dituzte Tolosako azokan egindako lore lehiaketetan. Eta Gipuzkoako Merkatal Ganbarak ere 100 urteko ibilbidea saritu zuen.

Kanpoko landarea dena Adunan Zumetak duen bizitegitik ekartzen dute eta barruko landarea, Holandatik. Lorea berriz, Andaluziatik eta Holandatik. Lehen bertaraino joan behar izaten zen kamioiz, baina orain internetez eta banatzaileen bidez erosoago moldatzen dira. Ontziak eta dekorazio gaiak ere saltzen dituzte, Italia, Frantzia eta beste herrialdeetako hornitzaileen bidez lortuta.

No podemos dejar de mencionar que la familia Arregui lleva años decorando la figura de San Juan en la parroquia de Santa María durante los sanjuanés y repartiendo claveles después de las vísperas y completas de la ermita de Arramele.

Ya hemos dicho antes que las flores están presentes en los momentos más importantes de la trayectoria de la vida. El nacimiento, el bautizo, la primera comunión, la boda, los cumpleaños y el fallecimiento, por ejemplo. Tienen mucho trabajo con éste último, en estrecha relación con los tanatorios. El de las flores es un trabajo que supone mucha dedicación, sin horas cuando es necesario, y afirman que esta dedicación está desapareciendo.

Actualmente trabajan cada vez más con empresas: decoración de oficinas, inauguraciones y otros actos, los alrededores de la empresa... Aquí se les ha abierto un nuevo mundo a las floristerías. En este trabajo siempre necesitas nuevas ideas, ya que antes hay que hacer numerosas propuestas, como en las bodas, añadiendo para ello una larga experiencia a la creatividad innata. Han obtenido tres premios en los concursos de flores del mercado semanal de Tolosa. Y la Cámara de Comercio de Gipuzkoa premió también su trayectoria de 100 años.

Toda la planta de exterior la adquieren del vivero de Zumeta en Aduna y la planta de interior de Holanda. La flor llega de Andalucía y Holanda. Antes era necesario ir directamente en camión, pero ahora es más cómodo a través de internet y los distribuidores. También venden macetas y material de decoración que adquieren a través de proveedores de Italia, Francia y otros países.





Loreo arazo asko konpontzeko baliabidea izan daiteke, eta aurrekontu gutxiarekin gaitasuna lortzeko. Amodio eta desamodio istorio asko ikusi dituztendendan, legalak eta sekretuak, erosle misterioitsuak ere bai tartean, beti beharrezkoa den diskrezioaz eta profesionaltasunez emanez bere zerbitzua.

Jon Arregi da familiako laugarren belaunaldia dendan. Baso ingeniari izan zen, baina ondoren hasi zen erabakiz lanean negozioan, aita 2010ean hil zenean aurretik ere laguntzen bazuen ere. Laguntza egiteko modua aldatu dela dio eta bezeroak ere bai. Gaur egun erlijioa maila altuagoa omen da. Beste lanez gain, argazkiak ateratzea eta webgunean eta sare sozialetan zabaltzea da beste arduretak bat. Internet bidezko salmentan ere lehen pausoak ematen ari dira. Arregi etxearek etorkizuna da bera.

Elkarrizketaren bukaeran lanik zailen jarri diegu ama-seei: lore gustukoena aukeratzea. Aukeraketa konplikatuak dela behin eta berriro errepikatuz, bakoitzak bere xarma duelako, azkenean ama arrosa, krabelina eta orkidea hautatu ditu eta semeak, hortentsia, landarean eta lorean, xumea delako.

La flor puede ser un recurso para solucionar muchos problemas, y además se adecúa a todos los presupuestos. Han visto muchas historias de amor y desamor en la tienda, legales y secretas, incluyendo compradores misteriosos, ofreciendo siempre sus servicios con la necesaria discreción y profesionalidad.

Jon Arregui es la cuarta generación de la misma familia en la tienda. Tras estudiar ingeniería forestal en Ponferrada empezó a trabajar plenamente en el negocio cuando murió su padre en 2010, aunque ya ayudaba desde antes. Señala que ha cambiado el modo de trabajar y también la clientela. Dice que es cada vez mayor la exigencia. Además de otras labores, se ocupa de sacar fotografías y publicarlas en internet y las redes sociales. Están dando también los primeros pasos en la venta por internet. Él es el futuro de Casa Arregui.

Al final de la entrevista les hemos puesto la labor más difícil a madre e hijo: elegir su flor preferida. Después de repetir que es una elección complicada, porque cada flor tiene su encanto, al final la madre ha elegido la rosa, el clavel y la orquídea, el hijo, la hortensia, en planta y en flor, por su sencillez.

